

Puntobobo



Itxaso Martin Zapirain

Bilduma: Narratiba, 154
Formatua: 150 x 220 mm
Orrialdeak: 184
Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2024-11-10
ISBN-a: 978-84-9109-998-7
Materia: Helduentzako literatura



Salmenta prezioa

19,50 €

Ez da *normala* izango, esan zion medikuak haurrak urtebete zuenean. Jaio aurretik, ordea, Amak jakin bazekien barruan zeraman haurra ez zela besteak bezalakoa izango. Amak alaba etxean isolatu zuen, eta herritarren txutxu-mutxuak areagotu egin ziren. Hain zen estua bien arteko harremana, beste alaba baten jaiotzak ez baitzuen hori haustea lortu.

Etxe heze eta ilunean sustraituko dira hiru emakumeak, asinkronia batean; bizilagunen usteak inguratuta, sufrikario eta errezoen artean, patu ankerrari begira. Etxe horretan ez dira, inolaz ere, hain erraz ustelduko sekretuak.

Emakumeen sufrimendua, osasun mentala eta familiarteko dinamikak ardatz ditu *Puntobobo* eleberriak. Itxaso Martinek ez du eufemismorik erabiltzen; estilo intimista eta soil batez idatzi du istorio honen errealitate gordina. Ez da eleberri kostunbrista bat, protagonisten psikologian sakonduz idazleak ateratako argazki gardena baizik.

Itxaso Martin Zapirain



Itxaso Martin Zapirain (Donostia, 1981) kazetaria eta antropologian doktorea da.

2012an kaleratu zuen bere lehen nobela *Ni, Vera* eta Zilarrezko Euskadi Saria eman zioten. 2016an argitaratu zuen *Eromena, azpimemoria eta isiltasunak idazten: hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu* doktoretzia, eta Micaela Portilla Vitoria saria irabazi zuen.

Irratian eta telebistan egin du ibilbide profesionalaren zatirik handiena, eta orain formatu berriak lantzen dituen laborategian egiten du lan EITBn.